

ATE IREKIEN JARDUNALDIA
INTERPRETAZIOA: TUBA - BONBARDINO
2019ko MARTXOaren 28a

2019ko MARTXOaren 28an Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **tuba eta bonbardino** espezialitatean. Bertan esku hartuko dute Luis M. Gimeno eta Eva Pereda irakasleek, eta Musikeneko tuba ikasleek.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten tuba eta bonbardino ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten tuba-tubatenore ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunea eskura duzen **izen-emate orriaren** bitartez

Jarduanaldiaren helburua

- Interpretazio probaren atal ezberdinei buruzko informazioa ematea, bai eta Ikastegiko ikasketa planari buruz ere.
- Goi Mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleei sarrera probei buruzko informazioa ematea, ikastegian sartu ahal izateko helburuz.
- Sarrera proba gainditzeari begira ikaslearen mailaren balorazioa egitea, proposatzen dituen obrak entzunez.
- Musikenen bertako ikasleekin egiten den lana erakustea, besteentzat erreferentzia izan dadin.

Lan-egitasmoa

9.45: Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Tuba espezialitatearen ikasketa-planari buruzko hitzaldi informatiboa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera proben azalpena. Eraikinari bisita.

10.30-11.15: Luis Gimeno tuba irakaslearen eskutik beroketa tekniko-eskola kolektiboa bertan dauden ikasle guztientzat.

11.30-14.30: Ate Irekien jardunaldian izena eman duten ikasle guztiekin interpretazio lan saioa, Eva Pereda erreperitistaren laguntzarekin.

14.30-15.30: Bazkaria

15.45: Tuba 4. mailako ikasleen entzunaldia, Musikeneko Metal Taldearekin batera.

17.00-18.30: Musikeneko tuba/bonbardino ikasleen eta jardunaldira etorri direnen artean hautatutako zenbaiten entzunaldia.

Non

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750 E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Haize eta Perkusio instrumentuen Departamentu buruarekin: Rodolfo Epelde repelde@musikene.eus